

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENDAKARITZA

1998

7/2018 DEKRETUA, apirilaren 10ekoa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen dekretua aldatzen duena.

Lehendakariaren azaroaren 26eko 20/2012 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak berregituratu zituen, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu, XI. legegintzaldiko Gobernu Programa modu eraginkorrean burutu ahal izateko.

Datu pertsonalen tratamendua eta datu horien zirkulazio askea direla-eta pertsona fisikoak babesteari dagokionez, 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) onartu zuten Europako Parlamentuak eta Kontseiluak.

Erregelamendu hori 2018ko maiatzaren 25etik aurrera izango da aplikagarria, eta datuak babesteko ordezkariaren izendapena, kokagunea eta zereginak arautzen ditu. Erregelamendu horren IV. kapituluko 4. atalean ezarritakoaren arabera, erakunde publikoentzat nahitaezko figura da ordezkariarena, kontrol-agintaritzaren eskuduntzen kalterik gabe.

Zeregin hori betetzeko, eta Jaurilaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.c) artikulua ematen dizkidan ahalmenen arabera, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Beste idatzi-zati bat –f bis) idatzi-zatia, hain zuzen– erantsi zaio Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren 6.1 artikuluari – dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen ditu, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen–. Idazketa hau du idatzi-zati horrek:

«f bis). Barne ikuskapeneko zereginak egitea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua betetzen dela bermatzeko. Erregelamendu horrek datu pertsonalen tratamendua eta datu horien zirkulazio askea direla-eta pertsona fisikoak babesteari buruzko arauak ezartzen ditu, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen du».

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Dekretu honetan xedatutakoa betetzeko beharrezkoak diren aurrekontu-eragiketak egingo ditu Ogasun eta Ekonomia Sailak.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan sartuko indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko apirilaren 10ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.